

PERPAUSAK

🔊 Esan perpaus hauetako bakoitzak zer galderari erantzuten dion.

(Zer? - Nola? - Zergatik? - Nolakoa? - Nongoa? - Zertarako? - Noiz? - Nondik?)

- Ni txikitatik altu samarra izan naiz.
- Kirolari amorratua dela entzun dut irratan.
- Herrian dagoenean, zoriontsu sentitzen da.
- Etxera noa oso berandu egin zaidalako.
- Nire amonaren herritik ekarri dute zuhaitz hori.
- Aurten etorri den ikasle berria Lesakakoa da.
- Goiz altxatuko naiz autobusa ez galtzeko.
- Txirrinak jo duenean sartu gara klasean.
- Gaur autobusez etorri naiz eskolara.
- Zuk eman zenidan kromoa galdu dut.
- Beheko solairutik igo dituzte apalategiak.
- Zurea baino meheagoa da nire koaderno.
- Ez da kalea gurutzatu behar semaforoa gorri dagoenean.
- Aurpegia garbitzeko joan da komunera.
- Zure osabaren baserrikoa da gazta hau.
- Ezin izan du inprimatu fotokopiagailua izorratu baita.
- Aurkitu duzun arkatza nirea da.
- Ni bezain altua zara.